

\_\_\_\_\_ ENTITATEKO

ZORU-KLAUSULEN ATALARI

**ZORU-KLAUSULAK SORRARAZITAKO KOPURUAK EZABATZEKO ETA ITZULTZEKO**  
**ERREKLAMAZIOA**

Abizenak			
Izena			
NAN/AIZ			
Helbidea			
Telefonoa		Emaila:	
Mailegu zk.:			

**AZALTZEN DUT:**

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa dihardut.
2. Tasa aldakorreko nire hipoteka-maileguaren kontratuak zoru-klausula bat jasotzen du, non xedatzen baita sorrarazitako interes-tasa ez dela inoiz % \_\_\_\_\_ baino txikiagoa izango.
3. Auzitegi Gorenaren 241/2013 epaiak abusuzkotzat jotzen ditu zoru-klausulak, gardentasun faltagatik, baldin eta...
  - a. Behar bezain argi informatzen ez bada kontratuaren xede nagusiaren elementu definitzaile bat dela.
  - b. Sabai-klausulekin batera txertatzen ez bada, haien itxurazko kontraprestazio gisa.
  - c. Kontratatzeko unean zentzuz aurreikus zitekeen portaeraren arabera izan zitezkeen eszenatokien simulaziorik ez badago.
  - d. Aldez aurretik modu argi eta ulergarrian informatu ez bada entitate beraren beste mailegu-modalitateekin -halakorik egonez gero- alderatutako kostuari buruz, edo ohartarazi ez bada bezero-profil zehatz horri ez zaizkiola modalitate horiek eskaintzen.
  - e. Informazioak datu-kopuru nahasgarri baten artean ageri badira, non ezkututzen baitira eta kontsumitzailearen arreta ahultzen baita.
4. Nire kontratuko klausula baldintza horietakoren batean subsumitzen da.
5. Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko abenduaren 21eko epaiak deuseztasuna atzeraginez aplikatu behar dela xedatu du, eta, horrenbestez, kontratua formalizatu zenetik kobratutako kopuru guztiak itzuli behar dira.

**HAU ESKATZEN DUT:**

1. Horrela badagokio, nire kontratuko zoru-klausula indargabetu eta ezabatzeko.
2. Kontratua sinatu denetik klausula aplikatzeagatik sorrarazitako kopuru guztiak eta dagozkion interesak itzultzeko.

\_\_\_\_\_, 2017ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_ a

Sin.: \_\_\_\_\_